



**EBAZPENA, 2023KO MAIATZAREN 3KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITIRA HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO APIRILAREN 27KO EBAZPENEAN AURKITUTAKO AKATSAK. EBAZPEN HORREN BIDEZ, DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNETAN EDO BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEAN BETETZEKO, HALA BADAGOKIO, ZONAKO BERRITZEGUNEETAKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEN AHOLKULARITZETAN ZERBITZUAK EMATEKO ZENBAIT LANPOSTU 2023/2024 IKASTURTEAN.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko apirilaren 27ko Ebazpenaren bidez, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean, hala badagokio, zonako Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezien aholkularitzetan zerbitzuak emateko 2023/2024 ikasturtean zenbait lanpostu betetzeko deialdia ebatzi zen.

Ebazpen horretan hutsak aurkitu dira, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horrela, eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** 2023ko apirilaren 3ko Ebazpenaren I. Eranskinean atzemandako akats hau zuzentzea, honela:

Honakoa dioenean:

BIZKAIA	ZARATAMO	B06-BASAURI-GALDAKAO	<b>GIZARTERATZEA INSERCIÓN SOCIAL</b>	Hutsa Vacante
---------	----------	----------------------	---	------------------

Honako hau esan behar du:

BIZKAIA	ZARATAMO	B06-BASAURI-GALDAKAO	<b>IKASTEKO GAITASUNEN GARAPENA DESARROLLO DE CAPACIDADES DE APRENDIZAJE</b>	Hutsa Vacante
---------	----------	----------------------	--	------------------



Eta honakoa dionean:

GIPUZKOA	ZARAUZ	G05-ZARAUZ	<b>IKASTEKO GAITASUNAK GARATZEA (2 LANPOSTU) DESARROLLO DE CAPACIDADES DE APRENDIZAJE (2 PUESTOS)</b>	Hutsa Vacante
----------	--------	------------	---	------------------

Honako hau esan behar du:

GIPUZKOA	ZARAUZ	G05-ZARAUZ	<b>IKASTEKO GAITASUNAK GARATZEA DESARROLLO DE CAPACIDADES DE APRENDIZAJE</b>	Hutsa Vacante
GIPUZKOA	ZARAUZ	G05-ZARAUZ	<b>GARAPENAREN NAHASTE OROKORRAK TRASTORNOS GENERALIZADOS DEL DESARROLLO</b>	Hutsa Vacante

### ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan, 112.1 artikularekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a

Blanca María Guerrero Ocejo  
**DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL  
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**